

ETXEBIZITZA/ VIVIENDA

Etxebizitza oinarrizko beharrizan bat da; merkatuaren eta espekulazioaren logikatik at geratu behar du bere eginkizun soziala betetzeko; hala jaso da Europako Eskubideen Kartan eta Eskubide Sozialen Adierazpen Unibertsaleko 25. Artikuluan/ La vivienda es una necesidad básica y tiene que estar fuera de la lógica del mercado y la especulación, para hacer su función social, tal y como viene recogido en la Carta de Derechos Europea y en el artículo 25 de la Declaración Universal de Derechos Sociales.

- Pertsona guztientzako etxebizitza erabili eta gozatzeko eskubidea, euren beharrizanetarako egokia eta inguru geografikoan. Kontutan izango dira batez ere aniztasun funtzionalak ezartzen dituen beharrizanak./ Derecho al uso y disfrute de una vivienda digna para todas las personas, adecuada a sus necesidades y en su entorno geográfico. Se tendrán en cuenta especialmente las necesidades derivadas de la diversidad funcional.
- Alokairu sozialean bizitzeko eskubidea; beraz, herri-administrazioek bultzatzea eta sustatu behar dute hau. / Derecho a vivir en alquiler social, debe ser por tanto impulsado y promocionado desde las administraciones públicas.
- Eskubidea, errenta inoiz ez dadin izan bizikidetz-unitateko diru-sarreraren %15 baino handiagoa, eta ez dezan eragotzi edo galarazi bizitzeko oinarrizko beharrak asetzea./ Derecho a que el precio de los alquileres no supere nunca el 15% de los ingresos de la unidad convivencial, ni dificulte o imposibilite la satisfacción de las necesidades básicas para vivir.
- Etxebizitza duin bat erabili eta gozatzeko eskubidea bermatzen ez den artean, hutsik dauden bizilekuak okupatzeko eskubidea bilakatzen da./ Mientras no se garantice el derecho al uso y disfrute de una vivienda digna, la ocupación de viviendas vacías pasa a ser un derecho.

Kalitatezko etxebizitza guztientzat bermatuko duten lege berriak:/ Nuevas leyes que garanticen una vivienda de calidad para todas:

- Etxebizitza eskubidea bermatzeko **Lurzoruaren Legea** ere behar da./ Se precisa también una nueva **Ley del Suelo** dirigida a garantizar el derecho a la vivienda.
- **Lege Hipotekario** berri bat onartuko da, etxebizitzaren erabiltzaileen eskubideak bermatzeko./ Se aprobará una nueva **Ley Hipotecaria** que garantice los derechos de las personas usuarias de la vivienda.
- **Etxebizitza Lege** berri bat egingo da aipatutako eskubideak jaso eta bermatzeko parte hartze eta kontrol sozialarekin gauzatuko direla./ Se elaborará una nueva **Ley de Vivienda** que recoja los derechos enumerados y garantice que se lleven a cabo con participación y control social.
- Fiskalitateari dagokionez, etxebizitza erosi nahiz finantzatzeko zerga-arintzeak kenduko dira./ Fiscalmente se eliminarán las desgravaciones por vivienda tanto a la compra como a la financiación.
- Legez definitu beharra dago zer den etxebizitza huts bat./ Es necesario definir legalmente qué se entiende por vivienda vacía.

- Etxebizitza hutsa penalizatu behar da, tasa gehiago eta IBlaren igoerak ezarriaz./ Penalizar la vivienda vacía con nuevas tasas y subidas del IBI.
- Bigarren etxebizitzari zergak ezarri./ Gravar fiscalmente las segundas viviendas.
- Kasu jakin batzutan beren eginkizun soziala betetzen ez duten etxebizitzak desjabetu ahal izango dira./ Se podrá en determinados supuestos expropiar viviendas por no cumplir con su función social.
- Etxe bati ere ez zaio etengo argindar, ur edo gas hornidura ordaindu ezinean dagoelako./ A ninguna vivienda se le cortará el suministro electricidad, agua o gas por imposibilidad de pago.
- Etxebizitza duin bat erabili eta gozatzeko gure eskubidea bermatu ahal izatearren Euskal Herrian, geurean, guztion artean aurrera eraman nahi dugun ereduari buruz erabakitzeke, legeak egiteke eta ordenatzeko ahalmena izan behar dugu. Subirania behar dugu gure eskubidea artikulatzeko./ Para poder garantizar nuestro derecho al uso y disfrute de una vivienda digna, tenemos que tener capacidad de decisión, poder legislar y ordenar el modelo que queremos llevar adelante entre todos y todas en Euskal Herria, nuestro pueblo. Necesitamos la soberanía para articular nuestro derecho.

Informazio, sentsibilizatzeko eta kontzientzia hedatzeko kanpaina publikoak pertsona guztientzako etxebizitza duin bat erabili eta gozatzeko eskubideaz, merkatu, espekulazio eta negozioaren logikatik ateratzeko, alokairu soziala sustatuz; bulegoak irekiko dira informazioa jasotzeko, eskariak bideratzeko, zalantzak argitzeko.../**Campañas públicas de información, sensibilización y concienciación sobre el derecho al uso y disfrute de una vivienda digna para todas las personas,** para sacarlo de la lógica del mercado, la especulación y el negocio, fomentando el alquiler social, con oficinas donde las personas puedan acceder a toda información, solicitudes, contrastes,

Etxebizitza parke publiko bat/ Parque público de viviendas

- Etxebizitza Parke Publiko bat sortzea, alokairu sozialerako, kudeaketa publiko eta parte hartze komunitarioaz. Parkea hutsik dauden etxebizitza guztiek osatuko dute, publiko nahiz pribatu, eta gaur bankuen, eleizaren eta armadaren esku daudenak./ Creación de un Parque Público de vivienda de alquiler social de gestión pública con participación comunitaria. Estará compuesto por todas las viviendas vacías, tanto públicas como privadas pertenecientes hoy en día a bancos, iglesia o ejército.
- Udaletan erakunde komunitario bat sortzea, eragile sozialen parte hartzea bideratzeko. Honek herri bakoitzeko errealitatea aztertuko du (etxebizitza hutsen eta beharra duten pertsonen zerrenda bana eginez), bertan bizi diren pertsona guztiei etxebizitza duin bat erabili eta gozatzeko eskubidea bermatzeko./ Creación en los ayuntamientos de un ente comunitario donde puedan tomar parte agentes sociales... que analice la realidad de cada pueblo (haciendo un listado de casas vacías y otro de personas necesitadas) y que garantice el derecho al uso y disfrute de una vivienda digna a todas las personas vecinas.
- Interes eta larrialdi soziala medio etxe-gabetze guztiak geldiaraziko dira; eragindako etxebizitzak Alokairuko Parke Publikoan sartuko dira, eta maizterrak bertan jarraituko du, bere errealitate sozial eta ekonomikoari dagokion errenta batekin./ Se paralizarán todos los desahucios por interés y emergencia social,

pasando esas viviendas al Parque Publico de Alquiler y manteniéndose la persona inquilina con un alquiler adecuado a su realidad social y económica.

- Aurrekontuetan baliabide ekonomiko nahikoa aurreikusiko da etxebizitzak egokitu eta zaharberitzeko./ En los presupuestos se incluirán dotaciones económicas suficientes para la adecuación y rehabilitación de viviendas.
- Etxebizitza ereduak egungo gizartearen errealitateari moldatzea bultzako da; mota desberdinak bereiziko dira: espazio pribatuak, komunitarioak, ekologikoak, belaunaldi artekoak, kooperatiboak, etab./ Se impulsará la adecuación de los modelos de vivienda a la realidad social actual, diversificando sus tipos en cuanto a espacios privados, comunitarios, ecológicos, intergeneracionales, cooperativos...
- Landa-etxebizitzaren garapena lurrarekin, nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, lurraldearen egituratzearekin eta ingurumenarekin lotuko da./ La vivienda rural se impulsará unida a la tierra, el cultivo, la ganadería, la vertebración territorial y el medio ambiente.

Etxe hutsak/ Viviendas vacias:

- Etxebizitza hutsen erabilera lehenetsiko da hirien zabalkundea eta horrek eragiten duen xahutze ekologiko, ekonomiko eta lurraldekoa saihesteko./ Priorizar el uso de la vivienda vacía para evitar la expansión urbanística y el despilfarro ecológico, económico y del territorio que ello supone.
- Etxebizitza hutsak dauden artean ezin da eraiki./ Mientras haya vivienda vacía, no construir más
- Eraikitzea beharrezko denean, publikoa eta alokairu sozialerako izango da/ Cuando se precise construir, que sea de forma pública y para alquiler social.
- Etxebizitza edota eraikin zaharrak aniztasun funtzionala duten pertsonen beharretara egokituko dira, diru publikoz eta diru-sarreraren arabera./ Las viviendas o construcciones antiguas deberán adaptarse a las necesidades de las personas con diversidad funcional con dinero público según nivel de renta.

Bitarteko neurriak/ Medidas transitorias

- Oraingoz alokairu pribatuen ordaina erraztuko da, harik eta eskatutako etxebizitza parke publikoa eratu arte./ Actualmente se facilitará el pago de los alquileres privados mientras no se habilite el parque público de viviendas demandado.
- Bankuei ordaindu beharreko interesak berriz kalkulatu dira, aintzat hartuz etxebizitzaren balioak zein bilakaera izan duen hasierako mailegua eman zenetik gaur arte./ Se recalcularán los intereses a pagar a los bancos considerando la evolución de la valoración de la vivienda desde que se concedió el préstamo inicial y la valoración actual.
- Norbere etxebizitza alokatuz balizko erosketa amortizatze bideak ahalbidetuko dira/ Se habilitarán fórmulas que permitan mediante alquiler del piso propio ir amortizando una posible compra.